

Txitxi ta papa, papa bustia

Emmanuel Iñarra-k kontatua

Gaua da. Etxe batean, emazte zahar bat ari da iruten ; firin firin firin firin eta bat-batean lamina bat gibeletik sartzen da eta emazteari galdegiten dako :

« Txitxi ta papa – papa bustia. Txitxi ta papa – Papa bustia ».

Emaztea beldur da, beraz sua pizten du, haragia berotzen dako eta ogia bustitzen dako eta dena ematen dako eta laminak dena jaten du eta « pfit » kanpora joaten da.

Biharamunean, sukaldean, emaztea ari da iruten ; firin firin firin firin firin, eta bezperan bezala lamina sukaldean sartzen da eta emazteari galdegiten dako :

« Txitxi ta papa – Papa bustia. Txitxi ta papa – Papa bustia ».

Emazteak bezperan bezala haragia berotzen dako, ogia bustitzen dako, dena emaiten dako, laminak dena jaten du eta « pfit » kanpora joaten da.

Emaztea joaten da lo egitera bainan ezin du. Ari da beti mugitzen eta bere senarrak galdegiten dako :

« Bainan zer duzu ? Zendako ez duzu lo egiten ? »

« Bada bi gau lamina bat gure etxera jiten dela eta galdegiten duela : « Txitxi ta papa – papa bustia ». Ni beldur naiz beraz txitxia eta ogia ematen dazkot eta « pfit » kanpora joaten da ».

« Ez da grabe ikusiko duzu, laminetaz okupatuko naiz ».

Biharamunean, senarrak bere emaztearen tokia sukaldean hartzen du. Sua piztu du eta suaren gainean, zartaina bat olioiz betea ezarri du. Eta olioia ari da berotzen eta gizona ari da iruten. Furun furun, furun furun, eta « xlak » lamina bezperan bezala sukaldean galdegiten :

« Txitxi ta papa – papa bustia. Txitxi ta papa – papa bustia ».

Gizonak ez dako deus erraten eta segitzen du Furun furun, furun furun. Lamina :

« Bitxia da, beste arratsetan ari ziren filin filin filin filin eta orain ari zira Fulun fulun, fulun fulun. Bo ez da grabe, he eman txitxi ta papa. Papa bustia ».

Gizonak segitzen du Fulun fulun, fulun fulun. Lamina :

« He, zer da zure izena ? » Gizona :

« Nere izena. Nere izena da nehork nere burua ».

« Nehork nere burua ! dia zer izen bitxia hau ! ez da grabe, allez eman txitxi ta papa. Papa bustia ».

Gizonak zer egiten du ? Xutitzen da, zartaina hartzen du eta brau olioia bisaiara botatzen dako eta lamina brau kanpora joaten da, min du, odola badu denetan, joaiten da bere lagunenganat, eta erraten dio :

« Aie, aie, min dut, min dut ». Bere lagunak :

« Bainan nork egin dautzu ? »

« Nork egin datan ? »

« Nehork nere buruak ».

« Nehork zure buruak ! Aski duzu zure buruarekin konpontzea ».

